

*LABek kontratazio inguruko dinamika zabalduko du hurrengo hilabeteetan Araban kalitatezko enplegua bultzatzeko eta iruzurrezko kontratazioa ekiditeko. Ekimena enpresetara eramango dugu eta gako nagusiak eragile sozialekin partekatu eta herrialdeko erakunde nagusietan aurkeztuko ditugu.*

Aurreko astean benetako industria politika garatzeko 10 neurri proposatu genizkion Eusko Jaurlaritzari eta horien artean lan merkatu prekarioari aurre egiteko beharra azpimarratzen genuen. Bada, enplegu duina lortzeko enpresetara eramango dugun ekimena abiatuko dugu, kontratazioaren eremuan.

Izan ere, Araban zabor kontratuak nagusi dira “errekuperazio garaia” deitu den honetan. Hortaz, langabezia eta okupazioaren inguruan emandako portzentai-datuen gainetik, iaz sinatutako kontratuetatik %93,82a behin behinekoak izan ziren, eta aldi berean, %35,29a aldi baterako sinatu ziren. Datuok ondo baino hobeto adierazten dute Arabako lan merkatuaren errealitate prekarioa.

Errealitate horretatik abiatuta, LABek berresten du behin-behineko kontratazioan iruzurra handia dagoela, batez ere ebentualitate eta obrako kontratuetan. Hortaz, Arabako 2 enpresa pribatu handienetan, Mercedes eta Michelinen, Lan Ikuskaritzak ebatzi du iruzur hori, bi enpresei ehunka kontratu mugagabe bihurtzera derrigortuz. Argi dago bai enpresa hauetan, baita beste enpresa txikiagoetan ere, behin-behineko kontratuak erabiltzen ari direla langileen egoera prekarizatzeko, kontratazioa eta prekarietatea erabat lotuta egonik.

Beraz, langile berriek prekarietate handia pairatzen ari dira, etorkizunari begirako ziurgabetasunari gehitu behar baitaizkio soldata baxuagoak eta lan baldintza okerragoak -lan istripuen %30a lehen urtean gertatzen dira-. Hori gutxi ez eta zenbait kasutan diskriminazioa sufritu behar dute genero, arraza, ideologia, dibertsitate funtzionaleko eta abarreko arrazoiengatik.

Horren guztiaren aurrean, LABen honako gakoak planteatzen ditu kontratazioaren arloan:

- Kontratazio mugagabea bultzatzea, behin-behineko kontratuek aldi bateko lanak betetzeko erabili behar baitira, zenbait baldintzak betez, ez lanpostu estrukturalak betetzeko. - Iruzurra ekiditeko, enpresak bermeak eman behar ditu behin behineko kontratuak eginez gero, zehazki zeintzuk diren aldi bateko lan horiek.

- Behin-behineko kontratuen inguruan, Europako jurisprudentzia zuzenean aplikatzea, zeinaren ondorioz enpresak behin-behineko kontratuak (iruzurrezkoak ez direnak) bukatutzat emanaz gero 20 eguneko indemnizazioa ordainduko luke. Gure ustez, horrek ere kontratazio mugagabea bultzatu dezake. - Langileak kontratatzean eta kontratu mugagabeak egitean, inor diskriminatua ez izatea, inongo arrazoiengatik.

- Langile berriei lan baldintza eta eskubide berdinak aplikatzea.

LABek uste du gako nagusi hauekin Araban enplegu duina, kalitatezko eta bermeekin bultzatu dugula, behin-behineko kontratazioaren iruzurra oztopatuz. Horregatik, ekimena Arabako enpresetara eramango dugu, Mercedes eta Michelin behinik behin, eragile sozialekin, nagusiki

gazteriaren arlokoak, partekatuko dugu eta Arabako erakunde nagusietara eramango dugu, Gasteizko Udalera eta Biltzar Nagusietara.

—